

HIZKUNTZ ATLASA DELA ETA

Donostia, 1995-07-28

Beñat Oihartzabal

Euskararen atlasa: egitasmoaren nondik norakoa eta egoera

Euskararen hizkuntza atlasaren proiektuak bi helburu dituela esan daiteke:

- Ohiko mintzamoldeen gordailu arrazoizkoaren moldatzea.
- Bildurikako datuak esplotatzea, mapa liburuak eginez, eta dokumentuak jendeen eskuetan emanez.

Lehen helburua ia betea da; bigarrena, berriz, ez da egiazki hasia, nahiz oinarritzko lan batzuk abiatuak dituzten batzordekideek.

1. OHIKO EUSKALKIEN GORDAILU ARRAZOIZKOAREN MOLDATZEA

Zer da lehen-lehenik hizkuntza atlasa? Hauxe: galderategi baten arabera hizkuntza datu multzo bat, espazioari begira egituratua kontrasteen agerian emateko.

1.1. Galderategia

Euskararen atlasak 2762 galdera ditu herri guzietan egitekoak (eta 222 toki batzuetan bakarrik) (1).

Galdera bakoitzarentzat datu positiboak (erantzun libroak) eta negatiboak (proposatutako erantzun batez zer dioen lekukoak) biltzen dira, bai eta beste-lako datuak, etnografiari dagozkionak bereziki.

(1) Galderen eremua:

- Lexikoa: 2.090 galdera (+222 galdera itsas bizitari eta teknikei lotuak, itsas hegian baizik ez egitekoak).
- Fonetika: 41 galdera (baina informazio gehiago hiztegitik ateratzea pentsatzen da).
- Morfologia funtzionala: 575 galdera.
- Morfosintasia: 56 galdera.

1.2. Inkestalekuak

145 herritan egin dira inkestak, inkestaleku bakoitzean lekuko bat hautaturik (adin, sortze eta bizimduaren aldetik usaiako baldintzetan) (2).

Galderategia eta inkestalekuen zerrendak duela hamar bat urte finkatuak izan ziren. 1986an osatu zen inkestagileen taldea, eta 1987tik 1992 arte egin ziren inkestak, eta haien transkripzio manuskritoak.

1.3. Gordailua

Gordailuaz mintzo garelarik bi datu motaz ari gara:

— Datu fonikoak.

— Datu idatziak.

Datu fonikoak:

Inkesta guziak zintetan hartuak izan dira, orotara 4500 ordu bildu baitira horrela. Gordailuaren segurtatzeko zinta horiek guziak, atlasaren lehen ekaia osatzen dutenak, compact diskoetan jartzen hasia da *Aurten Bai* fundazioa (aurten bukatzeko den lana). Kontsulta publikoak Compact-disko horien kopietarik eginen dira.

Datu idatziak:

Zinta horietarik abiatuak, eskuz, kuaderno berezi batzuetan bildu dira erantzunak. Horrela herri bakoitzeko 5 kuaderno bete dira, erran nahi baitu erantzunak 725 kuadernotan bilduak izan direla idatziz.

Lan hori 1992an bukatu zen (salbu, Bizkaiko Diputazioari esker orain egingen ari den Compact diskoetarako aldaketa).

Lanaren parte hau ez da ikusgarria gertatu, ez baita jendeen begi-belarrietara zuzenean iritsi. Ordean, oinarrizko lana zen eta, hari esker Euskaltzaindiak geroko ere ondasun preziazgaitza osatu duela ez da dudarik. Batzordeari iduritzen zaio komeni litzatekeela altxor horrek zer balio duen oraino gehiago ja-

(2) Inkestalekuen sailkapena:

— Araba: 1.

— Bizkaia: 36.

— Gipuzkoa: 36.

— Lapurdi: 16.

— Nafarroa Beherea: 17.

— Nafarroa Garaia: 27.

— Zuberoa: 12.

Ikus daitekeenaz, 45 inkestaleku Iparaldean dira, eta 100 Hegoaldean.

kinaraztea, horretarako ospakizun berezi bat antolatuz (adibidez, lekukoak, edo multzo bat bederen, bilduz eta ofizialki eskertuz).

Haatik, gordailu batek bere egiazko balioa hartzen du, hartarik zerbait etekin ateratzen denean, edo jendeari haren ezagutzeko bidea eskaintzen zaiolarik. Ordean, beharrezkoa da horretako bildu den materiala esplotagarri izatea.

2. **BILDURIKAKO DATUAK BALIAGARRI EGITEA, MAPA LIBURUAK EGINEZ, ETA DOKUMENTU ZERBITZU BAT ERATUZ**

Gaur egun datuak kopuru handikoak direnean, haien sailkapena eta esplotazioa informatikaren bidez egiten da. Horregatik erabaki zuen Euskaltzaindiak, eta onartu ere Herri Aginteek, atlaseko datuak informatikaren bidez artxibatuak izanzen zirela, eta esplotatuak ere bai.

Proiektuarentzat oso garrantzi handikoa izan zen informatika baliatzeko erabaki hau. Zergatik? Bi arrazoirengatik bereziki:

- Alde batetik, atlasari mozkin gehiago ateratzeko bidea eskaintzen baitzuen horrek.
- Beste aldetik, lanaren esplotazioa biziki luzatzen zuen, lehenbiziko urratsean berean, eskuz egindako transkripzio guzia berriz datu base automatiko batean sartzeari eskatzen baitzuen horrek. Eta oso-oso lan luze eta astuna da horren egitea: oraingo logiziel eta tresnekin, guti gora behera 2 lankidek 2 urte behar dituzte liburuki baten sartzeko, hots, 80.000 erantzunen sartzeko ($560 \times 145 = 81.200$).

Ikus ditzagun bi puntu hauek.

2.1. **Mapa liburuak eta dokumentu zerbitzua**

Lehenago zer ziren hizkuntza atlasak? Mapa liburu handi batzuk, haien barnean mapa handi batzuetan item bati zegozkion erantzunak herrika emaiten baitziren. Eskuz eginak ziren eta izigarri maneia gaitzak ziren. Gaineratiko materialak, ez ziren argitaratzen, non ez ziren artikulu edo idazlan berezi zenbaitetan egiten.

Informatizazioa egina izan ez balitz horrelako zerbait eginen zen euskararen atlasaren kasuan ere. Ordean, informatikaren baliatzeko erabakia hartua izan baita, orain atlasaren esplotazioa bi modutan egiten ahal dela ikusten da: mapa liburuen bidez eta dokumentu zerbitzuaren bidez.

- Mapa Liburuen beha daude bereziki herri aginteak, zeren ikusgarri egingen baita haiekin finantziatu duten lan hau. Liburu horietan, galdera

bakoitzarentzat, erantzun zuzen guziak herrika zerrendaturik emanen dira, alfabeto fonetikoan, eta grafia normalean. Bestalde mapa ere egingen da (koloreak eta sinboloak baliatuz, irakurgarri izateko). Datu negatiboak kasu batzuetan ere kontuan hartuko dira beharbada, baina ez beti, gauzak luzeegi ez joateko. Gaineratiko erantzunak, baztertuko dira. Ez uste izan lan tikia dela: galdera bakoitzarentzat hiru orrialde bakarrik eskainiz banaz beste (nekez egingen da gutiagotan) heldu dira orotara 9.000 bat orrialde. Eta ez litzateke harrigarri arian orrialde gehixeago ere behar balira. Argitalpen hori informatikako datu basea baliatuz egitekoa da naski, burugabekeria bailitzateke, datu basea eratzen hasi ondoan, liburuen egiteko datuak eskuz baliatzen hasia.

- Mapa liburu horien ondoan gaineratiko informazioarekin dokumentu zerbitzu bat molda daiteke. Xedea hau da: erantzunak datu base automatiko batean eratuz gero, jendeari datuak nahi duen moduan eskaintzen ahalko zaizkio. Ez da beraz libururik egingen: sobera kario eta luze bailitzateke. Baina norbaitek zerbait nahiko duenean, askiko zaio Euskaltzaindiko bibliotekari eskatzea: bibliotekak estudioa egingen du ikusteko materialaren prestatzeko zenbat denbora beharko duen eta zenbat orrialde, eta araberako debisa proposatuko du. Erantzunak herrika, galderaka, gaika, etab... eskaintzen ahalko dira datu base automatikoa baliatuz. Epe luzeagoan, Internet sarean ezartzen ahalko dira modu horretako datuak. Horrelako zerbitzu bat eratuz, Euskaltzaindiak sekulako oinarri dokumentala eskainiko die euskalariei, eta herri jakintzaz arduratzen diren guziei. Menturaz zenbait dokumentu modu erregularrean *Euskera* aldizkarian ere argitaratzen ahalko dira.

2.2. Luzapena

Informatizazioa 1993an hasi da. EJIE etxeak programa berezi bat asmatu du atlasarentzat, datu basean sar zitezen bildurikako datuak. Bi urte honetan horretan ari izanak dira 4 lankide, eta datorren irailaren ondarrean, lehenbiziko 2 liburukiak osoki datu basean sartuak izanen dira.

Jakin behar da, haatik, egindako programaketa eta harekin lan egiteko baliatua izan den tresneria datuen sartzeko direla, EZ DATUEN ESPLOTATZEKO, lan hau bigarren fase baterako utzia izan baitzuten EJIEkoek. Baina haste horretarik beretik, argi zen egileentzat datu base automatikoko datuen baliatzeke ezinbestekoa izanen zela logiziel eta tresna berriak izatea.

Azken bizpahiru urteetan, gertatu izan dena badakigu: bigarren urratsa eman aitzin, diru arazoak agertzen edo handiagotzen hasi dira, eta egindako informatika presupostuak ez dira onartuak izan. Gaur egun ere egoera horretan gaude, zeren 1995ko urteko aurrekontuetan ere Euskaltzaindiak ez baitzuen dirurik atxiki ahal izan atlaseko informatika berrizatze horrentzat.

Atlasa geldirik dagoela esaten denean, hori ulertu behar da. Lankideek lanean segitzen dute, erantzunak datu basean sartzen, baina esplotaziorako urratsik ezin eman dezakete horretarako logizielak eta tresneria bildu gabe, esan nahi baitu informatikako eguneratzea egin gabe. Badu urtea lehen liburukia osoki datu basean sartua dela, eta esplotaziorako programen beha dagoela, liburuen prestaketa hasteko. Aurki bigarren liburukia ere sartua izanen da (1100-edo galdera, erran nahi baitu 5-etarik 2), baina informatikako programak eta tresneria aldatzen ez badira, esplotatuak izan gabe geratuko dira erantzun hauek ere.

3. ASMOAK DATORREN URTEARI BEGIRA

Oraingo egoeratik lehen bai lehen ateratzea komeni da, eta horregatik bigarren liburukiko datu sarrera bukatu bezain laster hasi behar litzateke informatika eguneratzea.

Orain artino osoki EJIEn eskuetan izan dira atlaseko informatika lanak. Euskaltzaindiak ez zuen enpresa horrekin harreman zuzenik, herri aginteen birtartez egiten baitziren lan guztiak; (beste proiektuentzat ere gauzak horrela dira). Nola nahi ere argi gera bedi, aditu guzietan, baita beste enpresetakoek ere, badiotela teknikoki ongi eginga izan dela EJIEn lana; (kostuak, ordean, ez dakigu zenbatekoak izan diren).

Ordean, bigarren fasera iragaitako EJIEk proposatu lehen aurrekontua oso handia baitzen (20 milioitik gorakoa), herri aginteei nahiago izan zuten Euskaltzaindiak ikus zezan ea bestela eginez gauzak nola agertzen ziren.

Hain zuzen ere, azken hiru hilabeteetan, aurreko saioei segida emanez batzordeak aztertu du informatikaren aldetik zer egin zitekeen. Lehenik, ahalmen administratiboak eta juridikoak zein ziren ikertu du herri aginteei eta EJIE etxeari; (arazo juridikoez informazio gehiago nahi duenak eska beza Euskaltzaindiari eginga izan zaion azalpen berezia, 1995-06-28koa); ondotik etxe desberdinei presupostuak eskatu dizkie.

Badirudi gauzak behar bezala eginez gero edozein modutan nahikoa garestia izanen dela eguneratzearen egitea. Aurten 2.500.000 pza bilduko baitira Lamassourre ministro ohiari esker, datorren urteko 8 milioi eskatu ditu batzordeak, lehen 2 liburukien datuen esplotatzen hasteko argitalpenak prestatuz (3). Luzatu gabe, ondoko urtean bederen, egin beharko litzateke, datu sarreraren sistemaren berriztapena, (5 milioi); bestela eguneratze lan bera berriz egin beharko da hirugarren liburukiko erantzunentzat.

(3) Batzordeak diru iturri berriak xerkatu ditu Frantziako aldetik bereziki: Akitaniako herrialdeari laguntza eskatuz, eta Bayrou, ikerketa eta irakaskuntzako ministroari ere bai (95-07-21eko bilkura Pauen). Bilboko egoitzatik ere Europaren aldera jotzeko asmoa dute helburu berekin. Agian datorren urtean zerbait erdietsiko da urrats horiei esker.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin ere zerbait egin daitekeenetz ikusi dugu. Geografia sailekoek kartografian zerbait egin badezakete, informatikariek, berriz, badiote oso-oso lan pisua dela haientzat horrelako lan bat unibertsitatean egitea. Gauzak oraindik zehaztu gabe badaude ere, ados leudeke, halere, Donostiako informatikako jendeak, Euskaltzaindia eta EHUaren arteko hitzarmenaren barnean aholkularitza eta jarraipen lan baten egiteko atlasaren inguruko informatika arazoei begira (proposamenen artean aukeren egiteko, kontratuen idazketerakoa aholkuen emateko, kontratuak nola gauzatzen diren jakile gisa kontrolatzeko). Batzordeak begi onez ikusten du horrelako zerbait egitea, ez baita batzordean, ez Euskaltzaindian, egiazko informatikaririk.

Azkenean diru arazoak konpontzen balira datorren urteko, eta informatika eguneratzea *urte hastapenean berean* hasten ahal balitz, batzordeak pentsatzen du, lankideen aldetik baldintza beretan egonez, 1996ko ondarreko bideratua izanen litzatekeela argitalpen prestaketa eta arazo tekniko gehienak ere orduko konponduak izanen liratekeela. Gisa horretan ondoko urtean (1997) eman ahal litezke argitalpen batzordearen eskuetan 500 galderaren erantzunak.

Horretarako bi lankidek osoki argitalpen lanetan hasi beharko lukete, beste biak hirugarren liburukiko datuak sartzen jarraiki litezkeelarik.